

Bigarren urtez Debagoineko Koordinadora TransMarikaBolloFeministako kideok manifestazioara deituko nahi diegu debagoiendarrei ekainaren 28an Sexu Askpenaren nazioarteko egunean. Aurreko urtean Arrasaten egin genuen eta Debagoieneko herri guztietatik pasatzeko konpromezuari jarraituz, aurten Bergaran izango da hitzordua, arratsaldeko 19'30 etan herriko plazatik hasita. Amaiera Boulebarrean izango da eta bertan festa giroa prestatu dugu PolPol tabernan.

Aldarrikatzeko gaiak asko izanda, aurten Transexualitate eta Transgeneroaren aldeko eta Transfobiaren aurkako borrokari emango diogu garrantzia, izan ere, transexualak diren pertsonak gizakia gizaki denetik existitu arren, hau da, transexualitatea kontu natural eta erreala izan arren, oraindik ezikusiarena egin nahi duten begi eta pentsamolde asko dago, baita herria ganoraz hezteko edota informatzeko asmorik ez duten erakunde zein norbanakoak.

Beraz, aurtengo "Nire identitatea ez dago hanka tartean! Transfobiarik ez!" izatea erabaki dugu, aurten bertan izan baitugu Euskal Herriko zenbait hiriburuetatik zehar "Hazte Oir"eko autobus transfobikoa. Autobus honen helburua Chrysallis haur transexualen eta hauen gurasoen elkarrekin plazaratutako sentsibilizazio kanpaina deuseztu eta mespresatzeaz gain transfobia areagotu zein hedatzea zen. Pertsona transexualak eta maite gaituzten pertsonak iraindu nahian ez dira ohartu bizi osoan, idazteko gaitasuna dugunetik, testuliburuetan azaltzen diguten gezur berbera hedatzen ari zirela, ezer berririk esan gabe. Horrela da zoritxarrez, gaur egun haur, nerabe eta helduentzako testuliburu eta hezkuntza sistemen gehiengoak, (ez bada ia guztiak) oraindik erakunde hauek dioten faltsukeria berbera irakasten du: mutiko edo gizonak zakila dutela eta neskato edo emakumeek alua(bulba).

Eskerrak badauden gizartean pertsona zentzudun eta jakitunak ere, ikusi, entzun, sentitu eta bizkarra ematen ez diguten pertsonak, gure errealitatea ukatzen ez dutenak, elkartasuna erakutsi digutenak, badakitelako ukalezina dela, izan bagaudela bulba daukagun mutiko eta gizonak baita zakila daukaten neskato zein emakumeak ere.

Horregaitik eta arrazoi asko gehiagogatik, beharrezkoa da koordinadorak luzatutako deialdian parte hartu, komunikatu, informazio trukatu eta gizartearentzat hezkuntza duin bat aldarrikatzea: non gure sexu identitatea ez den kokatzen kromosometan edo hankartean eta jaiotzen gareneko itxurak ez duen gure bizimodua ala ongi izatea baldintzatzen; gure orientazio sexualak hau da, nork edo nortzuk erakartzen gaituzten ez duen gure bizitza baldintzatzen eta parekidetasuna ganoraz bermatzen den.

Ez dugu atzera pausorik nahi. Gure sexualitateak askeak nahi ditugu, izan eta disfrutatu, sentitu eta adierazi. Eta hori lortu arte borrokan jarraituko dugu.

Beraz, Debagoiendar guztiei animatu eta gonbidapena luzatzen dizuegu Bergarako hitzorduarekin bat egin dezazuen, parekidetasuna eta dagozkigun eskubideen defentsa guztion esku dagoelako, gizarte aberatsagoa delako aniztasuna babesten duena eta errespetua zein duintasuna zaintzen dituen.

Gora gizarte anitza!! Gora borroka transmarikabollobifeminista!!!!

Bergaran, 2017ko ekainak 20, asteartea

DEBAGOIENEO KOORDINADORA TRANSMARIKABOLLOFEMINISTA